

Eta gu, euskaldun kaletar, edo enpresa industrial, estatu-hiriburu printzipaletako edozein politikatik hain urrun egonik? Gure interesak, lehen edo etorkizunean hobeto?¶



Antxon Lafont

Ezer gutxi gehiago euroari buruz

Mundu euroa pæko naturaltasun osoz heldu da euroa. 1998ko maiatzaren lehen egunetan, 3an zehatzago izateko, euroan sartzeko azterketaren inguruko era guztietako gertaeren berri eman ziguten hedabideek. Harrotasunak tentetuta ageri ziren hautagaiak azken argazkian, non guztien arteko enfatikoena kabitu ez zen. Bere bulegora itzuli eta berehala, euroaren klubean sartu zenez bere herrialdea ezin hobeto zihoala *urbi et orbi* berriro aldarrikatu beste erremediorik ez zuen izan. Total, hamabostetatik guztiek gainditu zuten azterketa, batek salbu. Horietarik hiruk ez zuten oraingoz klubean sartzerik nahi. Azterketa hori gainditzea, azken batean, batzuentzat Osakidetzako azterketa gainditzea izan zena baino errazagoa izan zen. Eta estatu espainiarrean dena txokolatezko dominekin amaitzen denez, euroaren guraso omen diren Santer eta Wemer-i Principe de Asturias saria —azkenean 60 urtetik gorako ia guztiei egokitzen zaien Nobel sari espainiar eskuzabala— eman zitzairen. Haurraren aitona-amoneta eta birraiton-birramona defuntuak aipatzea ahaztu zitzairen, Europa gambio gune librea baino gehiago bilakatzeko mekanismoen beharraren benetako aurreikusleak.

Euroan sartzeko azterketan moldatu egin ziren irizpideak. Liderrek, Frantziak eta Alemaniak, apenas betetzen zituzten baldintza guztiak, epaimahaiari gomendioak eman ez eta presio eginez. Mirari italiarrak behartua zirudien. Balentria zirudiena —*euroteam*-ean sartzeari— lardas-

keria bihurtu zen. Sartu nahi izan ez zutenen artean, Erresuma Batuak eraginkortasun handiz lagundu zuen euroaren oinarriak ezartzen. Izan ere, oso gai zehatzetan esku hartu zuen, hala nola euroaren justizia arautegian, interes tasen kotazio sistemetan, eta baita burtsa merkatuen ordutegietan ere. Orain, egoitza han duten multinazionalen presiopean sartu nahi bide du euroan Erresuma Batuak, multinazional horientzat euren fakturazioaren zati nimitz bat baino ez baita merkatu estatalaren mugen barrukoa. Egoera honen aurrean, euroari buruzko sentsibilizazio kanpaina iragarri du exchequer-aren kantzelerariak.

Europako Batasuneko estatuburu edo gobernuburuaren kontseiluaren ondoren, Europako herritar guztiek entzun nahi zutena —egia ez izanda ere— esan zuten politikariek.

«Langabeziaren arazoa konpontzeko atea zabaltzen digu euroak», esan zuen Ekonomia ministro batek. Litekeena, baina era horretan baieztatzea ez-ohiko arinkeria da, zenbait faktore ministroaren esaldiaren norabidean badoaz ere.

Moneta egonkortasunak —berezkoa, EBean moneta bat bakarria izango baita— eta Maastricht-ek ezarritako inflazio baxuak konfiantza emango diote aurrezteari. Gainera, defizit publikoaren murrizte derrigomezkoa behartzeko ahalgina egingo da eta, ondorioz, Estatuaren gastuen finantzaketa beharrak txikitu egingo dira eta kreditu pribatuen aukerak liberatu. Onenean, enpresek inbertsioak handituko dituzte funtsezko arazoari aurre egiteko: kalitatearen lehia.

Jakina da moneta bakarrak ganbio arriskuak eta gastuak ezabatuko dituela. Moneta bakarrak ekarriko duen gardentasunagatik prezioak behetik homogeneizatuko dira. Prezioen murrizte honek muga bat izango du, baina enpresek zerbitzuaren eta produktuaren kalitatearen gainean borrokatu beharko dute. EBeko 350 milioi kontsumitzaileko merkatuari aurre egiteko, enpresak elkartze eta bat egite operazio handitan sartuko dira. Orduan, lehiakortasunean indarrak handituz, lehiakideen aurka borrokatzeko moduan izango dira. Inbertsioa hazi egingo da eta inbertsioekin batera enplegua, baldin eta produktibitatearen gehitzeak posible kapitalistaren eta hobekuntza sozialaren

arteko oreka egokia ahalbidetzen badu. Dena den, mundializazioa ondorio bera eragiten ari da bizkortasunez.

Moneta bakarraren beste ondorio bat beste parametro batzuen berezko desordena izango da. Inbertsoreak nola edo hala lortzeko ahaleginean, zergen eta gastu sozialen inguruko gerra piztuko da EBeko estatuen artean, EBak kudeaketa publikorako egitura propioa ez duen bitartean kontrolaezina izango den gerra.

Merkataritza arloan Internet-ek funtsezko papera jokatuko du merkataritza elektronikoa ezin konta ahala aukera zabalduz. Moneta bakarraren eta Internet-en arteko konbinazioa benetako bonba izango da merkataritza trukeetan. Prezioan gardentasunak eta homogeneousizazioak mundializazioa indartuko du. Merkataritza elektronikoa ren merkatua 2002. urtean 320 mila milioi dolarreko zifarra —horietarik 60 detailearen merkataritzaren alorrean— helduko dela aurreikusten da. Ez dirudi jarduera honek lanpostu gaitu asko sortuko dituenik.

Ekonomiaren kontrol funtzioa eta Batasunaz kanpokoekiko Europako moneta politikan esku hartzeko ahalmena Europako Banku Zentralari (EBZ) eman zaizkio, zeinak ikasle txarrak zigortzeko ahalmena izango duen. Herrialde zigortuak isun handiak jasan beharko ditu eta oinarritzko irizpideen normalizaziora eramango duten neurriak hartu beharko ditu: inflazioa, zor publikoa, defizit publikoa. Jakina da honek zer esan nahi izan duen iraganean: gastu soziala, inbertsio gutxiago eta langabezia gehiago.

Sinestezina dirudi EBZak hain neurrizgaineko esku-menak izatea. FEDek, ahalmen ikaragarria izan arren, kon-tuak eman behar dizkie Estatu Batuetako lehendakariari eta Kongresuari. EBZ erabat independentea da. Europako Batasunak ezingo du onartu erakunde zibil bat botere politikoaren gainetik egotea, eta dagoeneko esan da estatu federalaren egiturarik gabe euroak ezingo duela bizirik iraun. R. Mundell-ek moneta gune ezin hobeari buruzko bere teorian adierazitakoaren arabera, moneta batasuna eraginkorra da baldin eta, batasuna osatzen duten ekonomien konbergentzia indartsuari esker, erregioetako bateko nahasmendu ekonomikorako arriskua murriztu egiten ba-

da. Beste irizpide batzuk, Mundellen arabera, bere definizioari dagozkio, hala nola ganbio tipoen ondorioak ordezkatzaketa ditzaketenak. Oraingoan, eskulanaren mugikortasun handira eta soldaten eta lan merkatuaren malgutasunera mugatzen dira irizpide horiek. Aurrekontu europarraren babesean herrialdeen arteko finantza transferentziak gehi genitzake, baina aurrekontu europarrak ez da oraingoan.

Euroa, aitortu nahi ez bada ere, Europa politikorantzko etapa ezinbestekoa da, antolatu egin beharko den erantzukizun kolektiboa sortzen baitu.

Hurbilagoko arazoetara itzulita, euroaren etorrerak zuzenean eragingo dio gure bizimoduari, enpresakoari nahiz kalekoari. Enpresen funtzionamendu kontableak aldaketa sakon eta garestiak jasango ditu. Kontabilitatea eurotan egitea derrigorrezkoa izango da 2001-12-31tik; azken epea da. 1999-1-1etik kontuak eurotan aurkezteko aukera izango da.

1998ko otsaileko inkesta batek dioenez, eurorako igerotzea ondo prestatua dute EBeko herrialde batzuetan. Enpresak, 1999ko urtarrilaren lehenetik, gai izango dira honako operazioak eurotan egiteko:

- proposamen komertzialak: inkestatuen % 50.
- bezeroekin operazioak: inkestatuen % 55.
- hornitzaileekin operazioak: inkestatuetan % 60.
- kontabilitate orokorra: inkestatuen % 35.

Komeni da gogoratzea, gainera, burtsa transakzioak eurotan egingo direla 1999ko urtarrilaren 4tik.

Maastrichtek EBeko estatuei kudeaketa publikoan zorroztasun handiagoa eskatu dien bezala, euroak emaitzen hobekuntza exigituko die enpresei. Lastima da eurorako egokitzeari ikuspuntu teknikitik egitea aurre, defentsa jarreran alegia, aparteko aukera hau jarrera erasokorra eragingo lukeen mugarri enpresarialtzat hartu beharrean.

Beste osagai batzuk ere hartzen dute parte, zuzenean nahiz zeharka, euroaren segizioan. Enpresek, izan ere, aldaketa asko barneratu behar dituzte aldi berean: 35 ordu saihestezinak, 2000. urtera iragaiteak ekarriko dituen arazo tekniko-informatikoak, produktuen kalitate plangintza jada abiada bizian, mundializazioa, estatuen arteko lehiazerga politikan, prezioen homogeneizazioa behetik...

hauek baino ez aipatzearren. Beti bezala, egokitze gaitasun azkarrena dutenek iraungo dute bizirik.

Euskal Herrian, euroaren iristeak ondorio ia berehala-koak izango ditu zuzenean alderatu ahal izango baitira, kilometro gutxiko distantzian, prezioak eta soldatak, kotizazio sozialak eta zergak Iparraldean eta Hegoaldean.

Gure enpresek bezeroak informatu beharko dituzte, batez ere gure baliabideen % 30etik % 35era hartzen duen banaketa handian. Alderdi politikoak ere hautesleak xehe-tasun handienarekin informatzera behartuta egongo dira. Zentzu honetan, makroekonomiari buruzko informazioak arrunt bihurtuko dira. Gure Barne Produktu Gordina Estatuarena edo estatu askorena baino gehiago hazi dela esatea ez da aski izango. Lortuko al da informazio horren orde-z hazkunde horren ondorioei buruzko ezagutza izatea —hala nola, langabeziaren, soldaten eta inbertsio publiko nahiz pribatuen gora-beherak—? Politikari batek ez luke esango «gure BPG % 5,6 hazi da». Zera iragartzeko eskatuko litzaiokie: «Hazkunde horrekin halako eta halako hobekuntza lortu ahal izango dugu», lehen aipatutako parame-troetan.

Muga pasatzen dugunean karteran euroak edukitzeak eroslearen jokaera aldatuko du. Bisitan joandako lekuko moneta kromotzat edo *monopoly*-ko biletetzat hartu izan da. Gasturako izpiritu kontrol gutxikoarekin egin izan da gutzi erosketa. Lehen bilete-kromoekin joaten ginen Iparraldera, erosketetara; orain, aldiz, etxeko moneta berarekin joango gara, enkarguak egitera. Nahiz eta bezeroa moneta bakarrera bizkor ohitu, komenigarria litzateke joan den ekainaren 13an Ordiziako Mugazgaindiko Azokan egindako saioaren modukoak errepikatzea. Ordiziako espe-rientzian, bezeroek elikagaiak eros zitzateketen aurrez tru-katutako fikziozko euroekin. Hiru milioi euro gastatu zire n.

Berehala agertuko da lehia eta operadoreek arautze tresnak eskatuko dituzte. Horrela, esate baterako, Hirigin-tza Komertzialerako Mugazgaindiko Batzordeak sortuko dira, azalera handiko guneen ezartzearen egokitasunaz kontsultak egiteko. Mugazgaindiko beste erakunde batzuk ere sortuko dira. Auzi komertzialez aritzeko Mugazgaindi-

ko Arbitraje Epaimahaia eratu du dagoeneko Iparaldeko Merkataritza Ganbarak, Hegoaldeko Ganbarekin eta Konsumitzailearentzako Udal Informazio Bulegoekin batera.

Nabarmentzekoa da, baita ere, erreal, hogerlekoa eta pezetaren gisako sinboloak desagertarazi eta numismatika bildumetara igaroaraziko dituela euroak. Horrela, inperio ohien identifikazio zati bat desagertuko da. Euskal Herrian fenomeno hau oso era positiboan hartuko da epe ertainera izango dituen ondorioengatik, hala nola Iparraldea eta Hegoaldea barruan hartuko dituen erregioa (hitzaren esanahi europarrean) sortzeko beharra.

Zalantzarik gabe, euroak gure ohiturak aldatuko ditu epe labur eta ertainean, eta gure bizimodua ere bai, egokitzek luze jotzen badigu.¶

[Erredakzioan euskaratua]



Carmelo Urdangarin

Ekonomi eta Moneta Batasuna, eta euskal industria

1991ko abenduaren 10 eta 11 egunetan Maastricht-eko goi-bileran ezarritako bateratasun irizpideen betetzeak Ekonomi eta Moneta Batasunaren (EMB) hirugarren etapa, beste hamar herrialderekin batera, hasierako fasetik sartzeko aukera eman dio Espainiari. Pentsatzekoa da gutxienez beste bi —Erresuma Batua eta Danimarka— aurrerago sartuko direla, Europako Batasunaren Itunaren protokolo erantsietan eskubide hori gorde baitute.

Erabaki honen ondorioak eragin handikoak dira ekonomian eta, beraz, hasteko beharrezkoa da eztabaidaren eremua mugatzea, euskal industriara zedarrituz. Derrigorezko dirudi, hala ere, gutxienez lau gogoeta orokor egi-tea aurretik.